



# Udal hauteskunde- kanpaina amaierara iritsita, gaur hausnarketa

## TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

15 egunez alderdiek euren mezuak  
helarazi dizkiete herritarrei

## ERABAKIA ▶ Atsedeen egunaren

ostean bihar emango dute  
herritarrek bozka bi eskualdetan ▶ 2

## BERASTEGI ▶

### Gaur Euskal Herriko Sega Txapelketa izango da

Goikoetxea, Arteaga  
eta Kanflanka  
ariko dira ▶ 3



## Basterretxea eta Epelderen lanak ikusgai Aranburun

**TOLOSA ▶** Nestor Basterretxea eta Iñaki Epelde tolosarraren erakusketa TTEren 40. urteurrenaren harira antolatu dute Aranburu jauregian. «Nire baldintza bakarra askatasunez mar-  
gotzea da», azaldu du tolosarrak. E. ZEIZA ▶ 4

## ALTZO ▶

### Maddi Amiano judoka Espainiako txapelduna ▶ 5

**ceinpro**

**Disainu eta kreazioahalmonean  
oinarritutako heziketa**

• **DISEINU ETA PRODUKZIO EDITORIALEAN GOI TEKNIKARIA**  
ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN  
GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA

IRAILPENA - 2 ikasturte / 2000 ordu  
SARRERA - LH1 - EE I - edo HSACI, BATXOLERGIA gaituztu

• **ARTE GRAFIKODEN AURFEBRIMAKETAN TEKNIKARIA**  
ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN  
EPDI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA

IRAILPENA - 2 ikasturte / 2000 ordu  
SARRERA - 2. EBEI - LH1 - EE I - edo OBH gaituztu



# Udal hauteskunde kanpaina amaitu da

Hilaren 11n hasi zen udal hauteskundeetako kanpaina, eta atzo amaitu zen alderdiek zabalduetako azken mezuekin



Anoetan, EAE-ANVk herri programaren aurkezpena egin zuen. I. TERRADILLOS



Tolosako EAJK Triangulon burutu zuen kanpainako azken ekitaldia. NEREA URBIZU



Etberatek atzo Tolosan eginiko elkarretaratzea. N. URBIZU



## Ertzaintzaren «jarrera» salatu dute EAEren kartelak jartzean

N-1 errepidean, atzo, Tolosa parean, 3 lagun EAE-ANVren kartelak jartzen ari zirela Ertzaintzak «30 minutuz geratu, eta isuna jarri izana» salatu dute. («N-1ean ezin dutela oinezkoek ibili argudiatu dute horretarako»), adierazi dute. HITZA

### ERREDAKZIOA

Amaitu da udal hauteskunde eta batzar orokorretako kanpaina. Hilaren 11n ekin zioten alderdi desberdinetako hautagaiek euren mezua herritarrei zabalduz eta atzo izan zuten horretarako azken eguna. Hamabost egun luze izan ditugu alderdien zerrenden aurkezpenik, euren proiektuen nondik norakoekin, publikitatez beteriko kaleekin eta beste hainbat eta hainbat ekitaldirekin. Hala, atzoko herritarrei esateko geratzen zitzaiena baliatzeko azken eguna bazuten, gaurkoa hausnarketa eguna da, beraz, ezin dute alderdikideek herritarrei bozka eskatzeko aprobe txatu. Beraz, alkategiek aisirako, kirola egiteko, familiarekin egoteko erabiliko dute eguna.

### Azken egunekoak

Atzokoan, esaterako, Anoetako EAE-ANV herri programaren aurkezpen orokorra egin zuen udaletxean. Zizurkilen ere EAE-ANV aurkezpena egin zuen Joxe Arregi plazan, eta ekitaldiaren ostean, sagardotegian afaria egin zuten. Asteasun, bertako EAE-ANV deituta elkarretaratzea egin zuten plazan, eta Tolosan, berriz, kotxe karabana deitu zuen ezker abertzaleak *Putxerazorik ez, herritarren borondatea errespetatu* lelopean.

Bestalde, Tolosako EAJko alkategaiak eta zerrendakideak Tolosako Triangulon bildu ziren atzokoan ekitaldia burutzeko.

Etberatek deituta, bestalde, tentsio uneak bizi zituzten atzoko azken ostiralero elkarretaratzean. Euskal preso politikoek eskubideak jasotzen dituen dekalogo alderdiei aurkeztu dietenean ez dutela onartzeko konpromezua hartu salatu zuten elkarretaratzean.

### LEITZA ▶

## Akatsak egon dira EAEren boto-txarteletan

Zerrendaburua Jon Arangoa da, eta laugarren hautagaia, Xabier Zabalo

### ERREDAKZIOA

Leitzako EAE-ANV azaldu duenaren arabera, «hauteskunde-batzordeak egindako akatsagatik Leitzako Udalerako EAEren zerrendako boto-txarteletan, zerrendaburua Jon Arangoa eta laugarren potuan Xabier Zabalo agertzen badira ere, EAEren alkategaia, Xabier Zabalo izango da eta laugarren postuko hautagaia, berriz, Jon Arangoa».

Beraz, bozkatzeko boto-txartela zuzena eta legez baliokoa zerrendaburua Jon Arangoa azaltzen dena da.

### TELEFONOAK ▶

#### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

#### Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

#### Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrumendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

HERRI KIROLAK ▶

# Gaur Berastegin Euskal Herriko Sega Txapelketa

Goikoetxea gazteluarra, Arteaga baliarraindarrak eta Kanflanka leitzarra lehian



Andoni Goikoetxea gazteluarra —ezkerrean— eta Arkaitz Arteaga baliarraindarrak neurtuko dituzte indarrak. HITZA



Jon Kanflanka leitzarra izango da hirugarren lehiakidea. HITZA

## ERREDAKZIOA

Aurtengo Euskal Herriko Sega Txapelketa gaur hasiko da Berastegin. Lehenengo kanporaketan eskualdeko hiru segalari ariko dira: Andoni Goikoetxea gazteluarra, Arkaitz Arteaga baliarraindarrak eta Jon Kanflanka leitzarra. Intzeko Atari belardian egingo dute norgehiagoka, 17:00etan hasita.

Guztira 10 segalari eman dute izena txapelketan parte hartzeko eta horietatik 6 eskualdekoak dira. Aurretik aipatutako hiruz gain, Jesus Mari Ormaetxea *Urki* oreindarra, Jose Gabirondo gazteluarra eta Mikel Alkorta asteasuarra ariko dira. 10 segalariak hiru tal-

deetan banatu dira. Lehenengo taldeak gaur du saioa. Beste taldeek ekainaren 9an eta ekainaren 17an dituzte kanporaketak.

Segalariak 30 minutuz ebakiko dute kanporaketa bakoitzean. Talde bakoitzeko kanporaketan kilo gehiago ebakitzen dituzten 2 segalariak finalerdietarako sailkatuko dira, hau da, 6 segalari guztira.

## Arrospide Nazabalen aurka

Arrospidek gaur jokatu du Nazabalen aurka Vianako (Nafarroa) udal kiroldegian Urrezko Aizkolarien Txapelketaren finalerdian, 18:00etan. Finalerian Olasagasti izango dute zain



Jon Kanflanka leitzarra izango da hirugarren lehiakidea. HITZA

norgehiagoka honen irabazleek. Arrospidek ez du aurkari erraza izango aurrean. Nazabal baita Urrezko Aizkolarien Txapelketaren egungo txapel-

duna. Halere, Arrospide maila ona erakustena ari da Txapelketa honetan eta ezustekoa eman dezake finalerdia eskuratuz.

LARRAUL ▶

## Sari banaketa I. Gutunen Lehiaketan

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateko kultur-dinamizazio arloak Aiztondo I. Gutunen lehiaketa antolatu zuen eta gaur egingo da sari banaketa Larraulen. Kultur aretoan egingo da, 18:00etan. Sariak banatu aurretik, sari-tuek beraien gutunak irakurriko dituzte.

LARRAUL ▶

## Ardo dastaketa ikastaroa Katilu-Txulon

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak ardo dastaketa ikastaroa antolatu du Larraulen, Katilu-Txulon. Ekainaren 12an hasiko da eta uztaillaren 5ean bukatu. Asteartetan eta ostegunetan egingo da, 19:00etatik 21:30era. 20 euro ordaindu behar dira eta izena ekainaren 5a baino lehen eman behar da. Aiztondoko bulegoetan edo 943 69 39 30 zenbakian.

TOLOSA ▶

## Laskorain abesbatzaren kontzertua

Laskorain abesbatzak eta Hernani Musika Eskolako abesbatzak kontzertua emango dute bihar Jesusen Alaben ikastetxearen kaperan, 12:00etan. Kontzertua bi abesbatzen arteko elkartrukean kokatzen da.

VILLABONA ▶

## Erretratu zaharren liburua salgai merkatuan

Hilaren 11n aurkeztu zuten Gurea antzokian Amasa-Villabonako erretratu zaharren liburua. Orduz geroztik salgai dago Amasan, Iturrigoxo jatetxean; Villabonan, Mirari, Basajaun eta Kazetaria liburu-dendetan eta Zizurkilan, Zubiondo liburu-dendan. Larramendi Bazkunak Zizurkilan, Andoainen eta Urnietan dituen egoitzetan beharpean dituzte Aiurriko harpidunak eta Bazkuneko bazkideek. Orain asteartetako merkatuan postua jarriko dute liburua saltzeko, 10:30etik 13:00etara.

VILLABONA ▶ PING-PONG

# Olaederra taldeak denboraldi hasierako helburua bete du bigarren mailara igotzea lortu eta gero

Ligan lehen lau postuetan gelditu ziren taldeen artean jokatu zuten iguera faseko partidak

## ERREDAKZIOA

Olaederra Ping-Pong taldea bigarren mailara igo berri da, denboraldi hasierako helburua lortuz. Tolosako Usabal kiroldegian lortu zuten Villabonako taldeak iguera. Lorpena egin duten jokalariek Txema

Armentia, Mikel Martin, Alberto Etxeberria eta Iker Mugerza, izan dira. Tarteka Raul Lopezek eta Ion Caminosek hartu dute parte.

Taldearen hirugarren urtea den honetan egin da lorpena. Liga autonomikotik gora «eskaera maila handia da eta

erronka handiekin egin beharko diegu aurre maila horretan mantentzeko», azaldu dute taldekideek.

Iguera lortzeko norgehiagokak ligan lehen lau postuetan gelditu ziren taldeen artean izan ziren. Guztien artean jokatu behar zuten, bi partida goizean eta hirugarrena arratsaldean. Olaederra eta Krafft Atletico Lasarte gipuzkoarrak eta Zuzenak eta Gurealde.net talde bizkaitarrek hartu zuten parte lehian. Bai Olaederrak eta bai Lasarteko taldeak bizkaitarren aurkako bi partidak irabazi zituzten goizean. Beraz,

bi talde gipuzkoarrek lortu zuten igotzea.

Arratsaldeko partida, lehenengo eta bigarren postuak erabakitzeko zen. Olaederra ligan lehena gelditu bazen, Lasartekoek irabazi zuten partida. Hauekin maila handiko bi jokalarik hartu zuten parte eta horregatik lortu zuten garaipena.

Olaederrakoen hurrengo partida gaur Lasarten jokatu den XIII. Buruntza Nazioarteko Torneo izango da. Ondoren sailkatuen artean diru poltsa interesgarria banatzen dute lehiaketa horretan.

iragarki laburrak ▶

### ALOKAIRUA

**Karabana.** Errioxako kanpin batean karabana bat alokatzen da, guztiz erosoa. 669 70 68 70.

### GALDUTAKOAK

**Giltza.** Leaburutik Belauntzarako bidean, Volkswagen auto baten giltza aurkitu dute. 627 36 98 87.

## ERAKUSKETA ▶



Iñaki Epelde. «Gorria biziaren erreferente izan da beti gurean». E. E.




Epelde. Median gora. E. EZEIZA



Epelde. «Oinarrizko koloreak ditut gustuko». E. E.



Basterretxea. Mitologiako pertsonaiak. E. EZEIZA



Nestor Basterretxea. Gaueko, Mari, Intxixu, Mairuak... bezalako pertsonaiei forma eman die. E. EZEIZA

# Basterretxea eta Epelderren lanak ikusgai

Erakusketa TEEren 40. urteurrena dela eta ipini dute Aranburu Jauregian

## ERREDAKZIOA

Tolosako Ekinbide Etxearen 40. urteurrena dela-eta antolatutako ekimenen baitan, *Nestor Basterretxea/Iñaki Epelde* izeneko erakusketa ikusgai da ekainaren 28ra arte, Aranburu Jauregian. Artelanekin batera, lan hauen inguruko liburuxka bat egin dute, non hainbat artistek obraren inguruko iritziak ematen dituzten.

Nestor Basterretxea eskultoreak bere euskal bilduma kosmogonikoa aurkezten du lan honetan. Euskal mitologiaren oi-

narrituta egurra zielkatuz hainbat eskultura osatu ditu. Lan hau egiteko, Barandiaranek bilduriko informazioan oinarritu da. Egilearen ustetan, «euskara oinordetzan hartu badugu ere, ikonografia ez. Hala, Barandiaranen obra eza-gutzean, honi forma ematea erabaki nuen».

Epelde margolariak berriz, bere lan abstraktuak aurkezten detu bilduma honetan. Hauek, kolore biziz hornituta daude, estilo abangoardistan baina aldi berean, margolan klasikoei erreferentzia eginez.


IÑAKI EPELDE ▶ MARGOLARIA

## «Nire baldintza bakarra, askatasunez margotzea da»

Iñaki Epelde (Tolosa, 1958) margolariaren artelanak ikusgai dira egun hauetan Aranburu jauregian.

**Zein harreman dute zure lanek eta Basterretxearenek?**

Aspalditik ezagutzen gara, eta bagenuen asmoa zerbait elkarrekin egiteko. Bestalde, serie kosmogonikoak 30 urte betetzen ditu, eta Tolosako Ekinbide Etxeak 40, horregatik, aitzakia hau hartu dugu gure lanak batzeko. Bestela, artelanen artean, Basterretxearenek oso



E. EZEIZA

kolore soilak dituzte, eta nireak berriz, oso biziak, horregatik, ongi geratuko zela pentsatu genuen.

**Nondik abiatzen zara artelan hauek egiteko?**

Eragin asko ditut, eta hauek nabarmenak dira. Dena den, nire abiapuntua da gauzen esentziara joatea, eta aurreiritziak albo batera uztea. Askotan sena da, horrenbeste gauza ikusten ditut. Nire buruari jartzen diodan baldintza bakarra askatasunez margotzea da. ◀

CJ CJ BT BT  
**JULIAN D TOLOSA**

Inoiz jango duzun txuletarik hoberena jan nahi baduzu, Julianera etorri, probatu eta berriro ere etorriko zara

CJ BT

Santa Klara kalea, 6  
 Tel.: 943 67 14 17  
 20400 Tolosa

ontzadan  
 lentzeria-denda

ILURRE ALDUA 3  
 20400 TOLOSA

TLF. 943673771

JUDOA ▶

# Maddi Amiano judoka Espainiako txapelkun

Infantilen mailan maila altua erakutsi zuen; Tolosako Aiora Aburuza kadeteetan brontzea lortzekotan izan zen



Maddi Amiano, podiumean, Espainiako Txapelketan. HITZA

moldatu zen bere lehen Espainiako txapelketan; zailtasun guztiak gaindituz, kanporaketak pasa zituen, final-laurdenak, finalerdia eta baita finala irabazi ere: Espainiako txapelkun. Izugarritzko lorpena, bere taldeak euskal selekzioarekin lortutakoa gehitu beharrekoa.

Aiora Aburuza kadeteak 63kg azpitik, aurrerapen bikaina eta gerora zer esana eman-go duela erakutsi zuen: brontzearen atarian geratu zen. 25 segundu falta zituen domina eskuratzeko baina derrigorreko azken eraso batean menpean hartu zuen aurkariak.

Tolosan judoka onak daude, maila handiko txapelketetan dominak lortu dituztenak, baina orain arte inork ez zuen eskuratu Amianok ekarri duena. Dena, beti ere, gurasoei, kideei eta entrenatzaileei esker.

ERREDAKZIOA

Maiatzeko lehen aste bukaeran infantil eta kadete mailako Espainiako txapelketak ospatu ziren Murtzian. Bertara Tolosaldeko bi judoka hurbildu ziren,

txapelketa bikain bat egiteko asmoz. Eta baita lortu ere, biek «maila dotorea» erakutsi baitzuten, Tolosako judoarentzat aste bukaera historikoa lortuz.

Maddi Amiano infantil mailan, 40kg azpitik, «oso ondo»

AMEZKETA ▶ PILOTA

## Goñi handia eta Eneko Galarza, bihar

Pilotalekuan bi norgehiagoka izango dira, 18:00etatik aurrera

N. URBIZU

Amezketan bi arrazoi nagusi dituzte bihar arratsalde on bat pasatzeko: Eneko Galarza amezketarrak jokatuko du, eta bere bikotea Mikel Goñi bera izango da. Aurkariak Haritz-Zeaga izango dira. Hauen aurretik txikitxoak ibiliko dira:

Erik Sagastume-Ander Iribarren eta Ugaitz Galarza-Julen Otamendi.

18:00etan hasiko da lehen norgehiagoka txikiekin. Sarre-rak Amezketako tabernetan daude salgai 8 eurotan, eta takkilan bertan 10 euroa izango dira. Dagoeneko, 200 lagun joango dira pilotalekura.

Mikel Goñik Asperekin erdi hitzartuta dauka hurrengo denboraldia, baina oraindik ere ez da ziurra. Ziurra dena, bihar Amezketan sortuko den giroa: pilotalekuan ikuskizuna eskaintzen duen pilotaria da Goñi nafarra, eta jendeak haren gosea dauka. Gainera, Galarza herritarrekin ariko da.

ALEGIA ▶ KIROLA



Urtero banatzen dituzte sariak, denboraldiaren bukaeran. P. R.

## Intxurrekoen jaia, gaur, zahagi sagardoarekin

Denboraldia ia bukatuta, afaria izango da

NEREA URBIZU

Intxurre futbol eta areto futbol taldekoak denboraldia bukatuz aurrerantzean daude: horregatik, plazan zahagi sagardoa egingo dute. Bertan afalduko dute, eta hurbiltzen den guztiarentzat sagardoa izango da. Afaria norberaren kontu izango da. 20:30etik aurrera egongo dira, eta ondoren Garaialde iturgintzak oparitutako erlojuak jokalariei banatuko zaizkie. Gero, Intxurren kontura jokalariei bakoitzari detailtxo bat banatuko zaie.

Emaitzak «oso onak» izan dira, baina oraindik ere hobekak izan daitezke, jokoan baitago mailaren igoera hainbat kasutan. Ez dago dena haien esku. Lurreldekoak gaur 15:30ean jokatuko dute Elge-

taren aurka, Alegian, eta irabaziko gero, 1. mailara igoko lirake. Denen animoen beharra izango da, aurrerantzean maila altuagoko neurketak herrian ikusi ahal izateko.

Gaur 11:30ean Oartzunen kadeteak ariko dira. Hauek 3. daude sailkapenean eta joan-etorriko egin beharko dute Oartzunen aurka, hauek ere 3. daudelako beste talde batean. Biak irabaziko gero, ohorezko mailara igoko lirake.

Gipuzkoako Txapelketako finala jokatuko behar dute infantilek Matigoxategin, 12:30ean. Aurkariak Ekintzakoak izango dira, baina oraindik ere hobekak izan daitezke, jokoan baitago mailaren igoera hainbat kasutan. Ez dago dena haien esku. Lurreldekoak gaur 15:30ean jokatuko dute Elge-

ALBIZTUR ▶

### Kultur Astearen baitan, Ernioetik Urkizu aldera

Albizturko Kultur Astearen baitan, bihar Ernioetik Urkizura joango dira, eta 07:30ean abiatuko dira plazatik. Helburua herriko mugak ezagutzeko izango da. Ondoren, haiketakoak izango da.

ABALTZISKETA ▶

### Escola berriaren inaugurazioa gaur izango da

Gaur goizean, 11:00etatik aurrera Abaltzisketan eskola berria inauguratuko dute. Lehenago aterpea zena izango da eskola eta datorren ikasturtea bertan hasiko dute.

ALEGIA ▶

### Ahots Bidaztiak saio berezia, ekainaren 1ean

Alegiko Kultur Etxean ostira-lean Ahots bidaztiak emanaldia izango da Goikoetxea anaia-arrebekin, Iñaki Mezquita gitarra-jolearekin eta herriko hainbat ahotsekin. Musika, bertsoa eta ipuina jorratuko dituzte eta sarre-rak 2 euroa izango dira, astelehenera aurrera salgai, Kultur Etxean bertan.

BEDAIO ▶

### Bedaioko I. Mendi Martxa inguruak ezagutzeko

Ekainaren 10ean Bedaioko I. Mendi Martxa neurtua izango da. 6-8 ordu ingurukoa izango da eta punturik altuena Artubi izango da. Antolatzailerak Artubi elkartea eta Tolosako Udala dira, eta laguntzaileetako bat TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA da. Izena [www.bedaio.com](http://www.bedaio.com) webgunean eman behar da.



Artubira igoko dira. HITZA

UDAL HAUTESKUNDEAK  
astelehenean  
**HITZA**  
eskualdeko emaitzak herriz herri

IBARRA ▶ JAIK

# Gaur hasi eta etzira arte izango dira Izaskungo jaiak

Hiru egunetan herriko talde ezberdinek izango dute protagonismoa jaietan



Alur dantza taldearen emanaldia joan den urteko Izaskungo jaietan. HITZA

## ASIER IMAZ

Gaur arratsaldean emango diote hasiera Ibarako Izaskun auzoko jaiak. Herri kirolak eta bertso afaria izango dira lehen eguneko ekitaldi nagusiak. Be-

rezitasun bezala, motozerrarekin egurrezko irudiak nola egi-ten diren ikusteko aukera izango da.

Izaskungo festa batzordeak bigarren egunerako bazkari herrikoa eta trikiti erromeria

antolatu dituzte, besteak beste. Astelehena izango da jaien azken eguna eta baita egun nagusia ere. Herriko haurrek ez dute ikastolarik izango eta 17:00etan goxokiak banatuko dituzte.

IBARRA ▶ ELKARTASUNA

## Kulturarteko jardunaldien azken eguna

A.Imaz ▶ Kulturarteko jardunaldien barnean, Txente Re-kondo, Nazioarteko Ikerketarako Euskal Lantegiko kideak hitzaldia eman zuen Ibarako Kultur Etxean herenegun. Pakistanen inguruan hitz egiteaz gain, inguruko herrialdeen ezaugarriak ere aipatu zituen. Gaur, 21:00etan Tolosako Oar-gi elkartearen afaria eta dokumentala antolatu dituzte. A. IMAZ



hilberria ▶



### Jose Manuel Arrojeria Mendizabal

Herenegun hil zen, Arrasaten, 64 urte zituela.  
Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.  
-Golan bego-

Haren gurasoak: Eustakio(t) eta Bittori (t); anai-arrebak: Jose Mari eta Maria Teresa Arzadun, Milagros eta Esteban Aristi, Jose Miguel (t), Tomas (t) eta Begoña Larrañaga, Ignacio eta M<sup>a</sup> Karmen Urkizu, Kandido (t) eta M<sup>a</sup> Jesus Manzisidor, Arantxa eta Patxi Acedo, Belen (t); iloba, osaba, lehengusu eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte GAUR LARUNBATA, arratsaldeko 17:00etan, ZARAUZKO parroki elizan, GORPUBERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea: Aitxe auzoa (Zarautz)  
Baso beltz baserria

ZARAUZTEN, 2007ko maiatzaren 26a

### HILBERRIAK URTEURRENAK ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN  
120.000 IRAKURLE

ESKELAK  
19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

IBARRA ▶

## Ekainaren 2an 'Sua' filmako akelarrea

Eneko Aritzaren Lagunak kultur elkarteak *Sua* filmaren azken grabaketa antolatu du ekainaren 2an, larunbaterako. Dimako kobazuloetan egingo duten akelarrearen ondoren, jai erraldoi bat antolatu dute gerturatzen diren guztientzat. Autobusak ere Euskal Herriko hainbat lekutatik antolatu dituzte. Tolosaldeko Ibarako plazatik irtengo da goizeko 11:00etan. Autoz ere joan daitekeela azaldu dute EALkoek. Informazioa gehiagorako 652 71 58 00 telefonoa jarri dute.

IBARRA ▶

## Kristau elkartearen argazki bilketa

Kristau Elkartearekin zerikusia izan duten argazki zaharren bilketa lanak hasi dituzte. «Dokumentu grafiko horiek bildu nahi ditugu herritar guztien eskuetan jartzeko». Etxean argazkiak dituenak, San Bartolome elizara edo parroki etxera eraman behar ditu. «Uzten den guztiaren agiria entregatuko da eta jasotako materiala bildu eta ordenatu ondoren, DVD batean publikatuko dugu».

IBARRA ▶

## Ekainaren 16an Marathon Ciclo Indor 2007

Ibarratik misio taldeak eta Bizkortzen Kirol Ekintzak I. Ziklo Indor Maratoia antolatu dute ekainaren 16rako, 17:00etatik 19:00ak bitarte. Egun horretan lagundu nahi duenari deialdia luzatu die. Horretaz gain parte hartzeko deialdia ere zabaldu dute.

ARESO ▶ SOKATIRA

# Aresok asteburuan bi modalitatetan parte hartuko du

Gaur Zamudion ariko dira Aresoko 11 mutilak 680 kiloko modalitatean eta bihar, Laukiz herrian, 640 kilokoan



Areso taldea Goiherri Aren aurka 560koan, 2006. urtean. JAIONE ASTIBIA

NAIARA GARZIA

Gaur Euskadiko Lur Gaineko Sokatira Txapelketako 680 kiloko azken jardunaldia eginen dute Zamudion (Bizkaia), eta Aresoko taldea bertan izanen da. Pisaketa 14:00etatik 15:30era egingo dute. Txapelketa 17:00etan hasiko da, eta Zamudioko pilotalekutik 200 metro ingurura dauden lorategi batzuetan egingo da.

5 dira modalitate honetan aurrean parte hartu duten taldeak: Areso, Goiherri, Mutriku, Gaztedi A eta Gaztedi B. Lehenengo jardunaldia Berriatua izan zen maiatzaren 13an eta Areso laugarren gelditu zen, 2 puntu lortuz. Bigarren jardunaldia, berriz, Endoian izan zen, maiatzaren 20ean, eta Areso hirugarren gelditu zen, 3 puntu eskuratuz. Beraz, Areso laugarren doa modalitate honetan 5 punturekin. Goiherri, Mutriku, eta Gaztedi A-ren atzetik.

Igandean, berriz, 640 kiloko modalitateko lehen jardunaldia izanen da Bizkaiko Laukiz herrian, eta talde berberak parte hartuko dute: Areso, Gaztedi A, Gaztedi B, Mutriku eta Goiherri. Pisaketa 08:00etatik 09:30era izango da eta txapelketa 11:00etan hasiko da.

Lur gaineko sokatiran lau kategoria daude (680, 640,

600, 560), eta bakoitzean 3 jardunaldi izaten dira. Xabier Arraras Leitzako sokatiralarriak azaldu duen bezala, «hiru jardunaldiak puntukakoak dira, puntuak batzen dihoazte eta egunero saikapen bat ateratzen da».

Oraingoz Aresok 4 txapela irabazi ditu 560ko modalitatean, baina aurrean ez du modalitate honetan parte hartuko. «Azkeneko urteetan emaitzarik hoberenak 560koan jaso izan ditugu, baina aurrean ez gara sartzen, eta orduan ez dugu talderik aterako», dio Arrarasek.

## Urte asko lanean

Areso taldea 2001. urtean hasi zen lur gainean lehiatzen, baina 1994. urtean goma gainean parte hartzen hasi zen. 2001. urtea izan zen kategoria honetan parte hartu zuten azkeneko urtea. 2001. urtea izan da, beraz, talde honek daramatzan

13 urtetan bi modalitate horietan aldi berean parte hartu duen bakarra.

Urte hauetan Euskal Herriko Txapelketan bakarrik parte hartu du Areso taldeak eta lau urtez (2001-2004 bitartean) 560ko kategorian txapela atera dute. «Beste pisuetan bigarren, hirugarren ibili gara», azaldu du Arrarasek. «Aurrean itxaropenik handiena behar bada 600 kilokoan dugu, guk ere nola jende berria dugun tartean martxa hartzea pixka bat kostatzen ari zaigu eta taldea utzi duen jendea asko botatzen dugu faltan, urte askotan hor zebilena baitzen. 680koa eta gero, 640 kiloko txapelketa etorriko da eta gero 600goa. Puntuaziorik hoberena azken honetan lortuko dugula pentsatzen dugu».

11 lagun dira sokatira taldean osatzen dutenak: Leitzako hirur, Aresokoak beste hirur, Lezakako bat, Ibarrako bat, Tolosan bizi den Getxoko bat eta Gasteizko bat, eta asteen bitan entrenatzen dute.

## MUNAZABAL altzariak

- 500 m<sup>2</sup> bi solairutan
- Bertako okasiozko altzariak
- Katalogoz kanpoko kitapena eta prezio bereziak:

Tel.: 943 65 17 61

San Inazio 2

TOLOSA

Koltxoiak, somier-ak, sofak, lasaitasunerako...

LEITZA ▶ PILOTA

# Herri Artekoa Irurtzunen jokatu dute, gaur

XV. Plazako Txapelketan, aurreko astean bezala, orotara 36 pilotari lehiatuko dira

N. GARZIA

Asteburu honetan ere herriko pilotazaletasunak izanen du jarduerarik, bai herrian bai kanpoan.

Hasteko Aurrera Pilota Eskolako pilotariak hainbat norgehiagoka jokatu dituzte asteburuan. Guztietatik goiztiarrena Jon Jaunarena izan zen, atzo jokatu baitzuen Urretxun, 21:15ean. Gaur, berriz, Ibai Gil eta Asier Gil Sunbillan ariko dira 12:00etan. Bihar Oihan Alduntzin eta Kalbo izanen dira Sunbillan jokatu dutenak, ordu berean. Ibai Gil eta Jon Iparragirrek, berriz, Etxaurin jokatu dute, 12:00etan.

Herri Arteko Txapelketari dagokionez, aurreko asteburuan Burlatzen aurka 4 partidetatik 2 irabazi zituzten arren, tanteoan Burlatak 6 tantorekin irabazi zuen. Asteburu honetan, aldiz, Irurtzunen jokatu dituzte Herri Arteko Txapelketa honetako lau norgehiagokak. 16:00etan hasi eta lehenengoak Migel Sagastibeltza Egues eta Mikel Sagastibeltza Lasarte izanen dira. Hauen ondoren Joxerra Aldaregia eta Jon Jaunarena



Aurrerako pilotariak. N.G.

ariko dira. Hirugarrenak Aitor Goikoetxea eta Oihan Alduntzin izanen dira, eta laugarrenak, Aimar Lansalot eta Mikel Iriarte.

## Plazako XV. Txapelketa

Gaur ere Plazako XV. Txapelketako bigarren jardunaldia jokatu dute plazan. Joan den larunbatean bezalaxe, orotara 9 izanen dira jokatu dituzten norgehiagokak eta 36 partaidek parte hartuko dute. Pilota partidak 15:00etan hasiko dira.

## XV. PLAZAKO TXAPELKETA ▶ PARTIDAK

### PILOTARIAK

1. Larraia eta Gartzia Barandiaran eta Riañoren aurka.
2. I. Zubillaga eta J.J. Zubillaga Ebeberria eta Zestauren aurka.
3. Galartza eta Lizartza Zeballos eta Iriarteren aurka.
4. Alduntzin eta Sagastibeltza Arangoa eta Abuzaren aurka ariko dira.
5. Aizagirre eta Andueza

Tellebexa eta Zabaletaren aurka.

6. Mariñelarena eta Olanu Zubitur eta Goikoetxeren aurka.

7. Aldaia eta Bengoetxea Lazkano eta Alduntzinen aurka.

8. Zabaleta eta Bengoetxea Olanu eta Loiarteren aurka.

9. Altuna eta Gorostegi I. Makazaga eta A. Makazagaren aurka.

**ARAMBURU**  
Alokatzeko (Salou), Apartamentua, 2 logela, 7 ohe, aire egokitu eta igerilekua, Hondartza ondoan.  
Alokatzeko (Tolosa), Pisu San Frantzisko kalean.  
Alokatzeko (Tolosa), Garajeak. Araba etorbidean irekia eta lurren eta San Frantziskon itxia.  
Alokatzeko, Pabilio industrialak, Leaburuko bidean.  
Salgai (Tolosa), Pisu "La Estrella" eraikinean.  
Salgai (Tolosa), Pisu Bizkaia kalean, gutzit eraberritua (Sputnik dorrean).  
Salgai, Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak Ibarren.  
Salgai (Tolosa), Garajeak Leidor azpian.  
943 65 17 13 / 677 46 09 16

**Mahala**  
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK  
Jogurta  
Mahala baserría - 20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633

**ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko maiatzaren 26a, larunbata ▶ V. urtea**

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldez beroena **16** hotzena **13**

BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldez

Zuzendariordea. Iñigo Terradillos. Kudeatzailea. Jon Mujika. Publizitateak. 661 678818. tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
 Tolosa. 687 410082 - 687 410033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info. **Vilabona-Aizt.** 687 410022. vilabona-aizt@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta** 687 410022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info. **Ibarraldea.** 687 410032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea.** 687 410034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info. **Leizaldea.** 687 410118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK**

udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Aikiza, Alizo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Inura, Leaburu, Leiza, Lizartza, Orea, Tolosa, Villabona, Zuzurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA** **902 82 02 01**  
 (balantzak argitzeko, harpidetuen egiteko...)

**AGENDA ▶**  
**DEIALDIAK**

**Baliarrain.** Idoia Sanchez ipuin kontalaria 18:15ean izango da herriko liburutegian.

**Izazkun.** Izaskungo jaiak: herri kirolak 18:00etan; 21:00etan bertso-afaria Izaskun jatebean.

**Tolosa.** Pirritx eta Porrotx pailazoan *Mari motots* ikuskizuna izango da Bonberenean 17:00etan. Bonberenea 10 urte bizirik egitarauaren barruan.

**Tolosa.** Umama II ikuskizuna eskainiko dute Hodeiertz abesbatzak eta Juanxto Zeberioeren jazz laukoteak (Gonzalo Tejada, Mikel Andueza eta Hasier Oleaga) Leidor aretoan 20:30ean.

**Tolosa.** Udal Musika Eskolak antolatutako Musikaria astea izango da aste osoan zehar kontzertuak eskainiz.

**Tolosa.** Xake Azkarra Txapelketa izango da Berdura plazan.

**Tolosa.** Homo Demens musika talde tolosarraren kontzertua Meskal tabernan 23:00etan.

**Zizurkil.** stopoleko titiriteroak; 12:30ean Nikaraguako proiektuaren aurkezpena; 13:00etan ludoetria; 17:00etan Afrikako dantzak africanas eta tatui tailerra; 18:30ean proiektzioak eta tea; 22:00etan Gau Mestizoa.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Irurtzun.** Mutiloa, A. San Martin, 5. 112.  
**Tolosa.** Azpiroz, L. Amaroz auzoa, 9. 943 675118.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.



**Udal Musika Eskolako aurrematrikula egiteko azken egunak**

**TOLOSA** ▶ Tolosako udal Musika Eskolako arduradunek jakinater eman dutenez 2007/08 ikasturteko aurrematrikula, hii honen 31n bukatzen da. Musika eskolan ematen diren ikasgaiak hauek dira: akordeoia, pianoa, perkusioa, flauta, klarineta, oboea, saxofoia, bibolina, biola, biolontxelo, kontrabaxua, baxu elektrikoa, tronpeteta, tronboia, tronpa, tuba, bonbardinoa, txistua eta dultzaina. Ez dago adin-mugarik eta lau urterekin has daiteke; helduentzat ere, solfeo eta instrumentuko ikasketa bereziak ematen dituzte. Argibide gehiagorako 943651593 zenbakian edo Gorosabel 34an dagoen bulegoan eska daiteke, 10:00etatik 13:00ata. **HITZA**

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
**Julieta.** Gaur 33 urte. Egun ona opa dizugu maite zaitugunok.



**URTE ASKOAN**  
**Nerea Irazusta Aristi (Alegia).** Gaur 4 urte. Zorionak familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
**Ekiñe (Lizartza).** Ebeko sorgintxo bikiarri txokolate eta marrubizko muxuboak.



**zuazola-larraña**  
**Onatiko b.h. institutua**



**KALITATEA HEZKUNTZAN**



**MATRIKULA EPEA: EKAINAREN 1etik 7ra**

Informazioa: telef.: 943782150 / www.onati.net / onatikobhi@goeskola.net

**ATE IREKIAK: maiatzak 30 - 18:30ean**

**ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

- Mekanizazioa: 2000 ordu
- Linea eroanbideen eta makinaren mantenu elektromekanikoa: 2000 ORDU
- Natur ingurunean gorputz eta kirol ekintzen gidaritza: 1400 ORDU (urtebete)